

ERAKUSKETA IBILTARI BATEK BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAREN EHUN URTEKO MUSIKA JARDUERA ERREPASATUKO DU GAURTIK AURRERA

- **Juan Mari Aburto** Bilboko Alkateak, **Unai Rementeria** Bizkaiko Ahalduen Nagusiak eta **Lorea Bilbao** Euskara eta Kulturako foru Diputatuak inauguratu dute gaur goizean Arriaga Antzokiaren kanpoaldean, eta ondoren, Bilbao Orkestra Sinfonikoak 1922ko martxoaren 8an emandako lehen kontzertuaren oroimenezko plaka estalgabetu dute.

- Erakusketa Arriaga Antzokiko Plazan egongo da martxoaren 30era arte, eta jarraian, Bizkaiko Getxo, Barakaldo, Durango, Markina-Xemein, Bermeo, Balmaseda eta Orduña herrietan izango da ikusgai.

- Gaurko ekitaldiaz gain, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren mendeurrenaren harira aurreikusitako jarduera-programa zabalaren barruan, kontzertuak, hitzaldiak, hiriko horma-irudi erraldoi baten sorrera eta komiki oroigarri baten argitalpena egingo dira.

(*Bilbo, 2022ko martxoaren 17a*).- **Juan Mari Aburto** Bilboko Alkateak, **Unai Rementeria** Bizkaiko Ahalduen Nagusiak eta **Lorea Bilbao** Euskara eta Kulturako foru Diputatuak **Arriaga Antzokiaren kanpoaldean** inauguratu dute gaur goizean **Bilbao Orkestra Sinfonikoaren ehun urteko musika-jardunean izandako gertaera historiko nagusiak laburbiltzen dituen erakusketa**.

Ondoren, **Arriaga Antzokiko atondoan**, BOSek agertoki horretan 1922ko martxoaren 8an emandako lehen kontzertuaren oroimenezko plaka estalgabetu dute.

Aburto Alkatearen esanetan, *“BOS egungo Bilbo unibertsal eta kosmopolita honen aitzindaria izan da hamarkada askotan, musika gizakiaren handitasunaren adierazpenik bikainenetakoa dela frogatuz”*.

Bilbao Orkestra Sinfonikoa 100 urte hauetan egindako lan nekaezinagatik zoriondu ondoren, Alkateak beren-beregi eskertu du *“bakea, **demokrazia eta askatasunaren aldeko konpromisoari eusten dioten hiri honen eta herri honen enbaxadore gisa**”* egin duen ahalegina.

Ekitaldiaren amaieran, **flauta eta harpa bikote baten** jardunaz gozatzeko aukera egon da, Horacio Parravicini eta Marion Desjacques BOSeko musikarien eskutik.

ERAKUSKETA IBILTARIA

Gaur goizean Arriaga Antzokiko Plazan Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 100 urteko musika-jardunari buruz inauguratu den erakusketa ibiltariak 12 paneletan laburbildu ditu taldearen historiako gertaerarik garrantzitsuenak.

Erakusketa Bilbon egongo da martxoaren 30era arte, eta jarraian, irailaren erdialdera arte, **Bizkaiko hainbat herritan** izango da ikusgai, eta horietan guztietan, gaurko ekitaldian bezalaxe, musika emanaldiak ere antolatuko dira inaugurazioaren harira:

- **Getxo** (martxoaren 31tik apirilaren 10era), Zubia Plazan (inaugurazioko kontzertua: Andrés Isasin).
- **Barakaldo** (apirilaren 21etik maiatzaren 5era), Herriko Plazan (inaugurazioko kontzertua: ISZeko Aretoan)
- **Durango** (maiatzaren 6tik 18ra), Bartolome Ertzilla- Kontserbatorio eta Musika Eskolan (inaugurazioko kontzertua leku berean).
- **Markina-Xemein** (maiatzaren 19tik ekainaren 1era), Goiko Portala kalean (inaugurazioko kontzertua: Udaletxeko bilkura-aretoan).
- **Bermeo** (ekainaren 2tik 12ra), Lamera Parkean (inaugurazioko kontzertua: Néstor Basterretxea Aretoan).
- **Balmaseda** (uztailaren 1etik 10era), San Severino Plazan (inaugurazioko kontzertua: Klaret Antzokian).
- **Urduña** (irailaren 8tik 18ra), Foru Plazan (inaugurazioko kontzertua: Familia Sakratua-San Juan Eliza).

MENDEURRENEKO EKITALDIAK

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren mendurreneko erakusketa ibiltariaren eta plaka oroigarriaren inaugurazioaz gain, aurreikusitako jarduera-programa zabalaren barruan, kontzertuak, hitzaldiak, hiriko horma-irudi erraldoi baten sorrera eta komiki oroigarri baten argitalpena egingo dira.

Horrela, Bilbao Orkestra Sinfonikoak joan den astean eskaini zuen **Mendurreneko Kontzertuaren** ondoren, BOSek BOSek **Guggenheim Bilbao Museoaren 25. urteurreneko** ospakizunekin bat egin eta Modest Mussorgskyren “Erakusketa bateko koadroak” joko du, baita Augusta Holmès frantsesaren “Andromeda” poema sinfonikoa ere.

2022-2023ko abonu-denboraldiaren barruan, Bilbao Orkestra Sinfonikoak “**El Señor de los Anillos: La Comunidad del Anillo**” filmaren jatorrizko bertsioaren (ingelesez, euskarazko eta gaztelaniazko azpitoluekin) kontzertu-proiektzioan parte hartuko du, Oscar bat irabazi zuen Howard Shorek konposatutako soinu-banda zuzen-zuzenean eskaintzeko.

Hitzordua abenduaren 15ean eta 16an izango da, eta astebete geroago, hilaren 22an (osteguna) eta 23an (ostirala), **Bilboko Udal Bandaren** eta BOSen arteko topaketa-kontzertua egingo da, bi taldeek batuta egin zuten 20 urte inguruko ibilbidearen oroimenez.

Azkenik, 2022-2023 denboraldi honetan, Bilbao Orkestra Sinfonikoak mendurrenaren kariaz bertako konpositoreei **enkargatutako hiru obra** estreinatuko ditu. Horrela, 2023ko martxoaren 9an eta 10ean, BOSek piano eta orkestrarako kontzertua eskainiko du, Musikaren Sari Nazionala irabazi berri duen Gabriel Erkoreka bilbotarrak konposatua. Eta

datoren urteko apirilaren 28an eta 29an, BBVA Fundazioaren 2020ko Leonardo Beka jaso zuen Javier Quisiant musikagile bilbotarraren “Tiempo silente zertxobait” obra estreinatuko du.

HITZALDI-ZIKLOAK

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren mendeurreneko jarduera-programaren barruan, hitzaldi-zikloa antolatu da **Deustuko Unibertsitatearekin** batera, iazko abenduaren 14tik, aurtengo maiatzaren 24ra bitartean, eta bertan parte hartuko dute, besteak beste, Maite Aurrekoetxea Juan Crisostomo de Arriaga Kontserbatorioko Zuzendariak, Miren Iñarga Musikeneko Zuzendariak, Jorge de Persia ikertzaile eta musika-kritikariak eta Luis Gago editore eta musika-kritikariak.

Era berean, abenduaz geroztik, sormen-prozesuaren gakoei buruzko hitzaldi-zikloa egiten ari da **Guggenheim Bilbao Museoko** Auditorioan, Patricia Sojo musikologoa, Birke Bertelsmeier konpositorea, Erik Nielsen BOSeko Zuzendari Titularra eta Isabel Urrutia konpositorea tarteko direla. Azken hitzordua apirilaren 27an izango da, Javier Quisianten “Tiempo silente” obraren estreinaldiaren kariaz, eta bertan izango dira Quisiant bera eta José Luis Besada, Radio Clásica irratiko “Música Viva” saioaren aurkezlea.

HIRIKO HORMA-IRUDIA ETA KOMIKI OROIGARRIA

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren mendeurrena ospatzeko aurreikusi diren bestelako jardueren artean, beren-beregi nabarmendu behar dira Bilboko orkestraren ehun urteko ibilbide musikarari buruz irailean argitaratuko den komikia, Enrique Martínez-Inchausti (Kike Infame) marrazkilari ezagunak egina, edota ehun metrotik gorako horma-irudiaren sorrera Jesusen Bihotza Plazaren ingurutik Olabeaga auzoraino doan horman, Pablo Astrin arte urbanoko espezialistaren eskutik.

UNA EXPOSICIÓN ITINERANTE RECORRE DESDE HOY LOS CIENTO AÑOS DE ACTIVIDAD MUSICAL DE BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA

- La muestra ha sido inaugurada esta mañana en el exterior del Teatro Arriaga por el Alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto, el Diputado General de Bizkaia, Unai Rementeria, y la Diputada foral de Cultura y Euskera, Lorea Bilbao, quienes también han descubierto una placa conmemorativa del primer concierto de Bilbao Orkestra Sinfonikoa, que se celebró el día 8 de marzo de 1922.
- La exposición permanecerá en la Plaza del Teatro Arriaga hasta el día 30 de marzo y posteriormente recorrerá las localidades vizcainas de Getxo, Barakaldo, Durango, Markina-Xemein, Bermeo, Balmaseda y Orduña.
- El acto de hoy forma parte del amplio programa de actividades previsto con motivo del centenario de Bilbao Orkestra Sinfonikoa, que incluye conciertos, conferencias, la creación de un gigantesco mural urbano y la publicación de un cómic sobre la historia de la orquesta.

(Bilbao, 17 de marzo de 2022).- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, el Diputado General de Bizkaia, **Unai Rementeria**, y la Diputada foral de Cultura y Euskera, **Lorea Bilbao**, han inaugurado esta mañana en el exterior del Teatro Arriaga una exposición que recorre los principales hitos históricos de Bilbao Orkestra Sinfonikoa a lo largo de un siglo de actividad musical.

A continuación, han **descubierto una placa conmemorativa en el hall del Teatro Arriaga**, cuyo escenario albergó el primer concierto de la BOS el 8 de marzo de 1922.

En palabras del Alcalde Aburto, *“la BOS ha sido durante décadas precursora del actual Bilbao universal y cosmopolita, demostrando que la música es una de las manifestaciones más sublimes de la grandeza del ser humano”*.

Tras felicitar a Bilbao Orkestra Sinfonikoa por estos 100 años de incansable trabajo, el Alcalde ha agradecido especialmente su papel como **“embajadora de una ciudad y de un pueblo comprometidos con la paz, la democracia y la libertad”**.

El acto ha **concluido con la actuación de un dúo de flauta y arpa**, formado por los músicos de la BOS Horacio Parravicini y Marion Desjacques.

EXPOSICIÓN ITINERANTE

La exposición itinerante sobre los 100 años de Bilbao Orkestra Sinfonikoa inaugurada esta mañana en la Plaza del Teatro Arriaga por 12 paneles que representan otras tantas etapas de la historia de la formación musical.

La muestra permanecerá en Bilbao hasta el 30 de marzo y, a partir de entonces y hasta mediados de septiembre, podrá contemplarse en distintas **localidades vizcainas**, que albergarán, como el acto de hoy, distintas actuaciones musicales con motivo de la inauguración de la exposición:

- **Getxo** (del 31 de marzo al 10 de abril), en la Plaza del Puente (concierto inaugural en Andrés Isasi).
- **Barakaldo** (del 21 de abril al 5 de mayo), en la Herriko Plaza (concierto inaugural en la Sala CIS)
- **Durango** (del 6 al 18 de mayo), en el Conservatorio y Escuela de Música Bartolome Ertzilla, donde también tendrá lugar el concierto inaugural).
- **Markina-Xemein** (del 19 de mayo al 1 de junio), en la calle Goiko Portala (concierto inaugural en el Salón de Plenos del Ayuntamiento).
- **Bermeo** (del 2 al 12 de junio), en el Parque Lamera (concierto inaugural en Néstor Basterretxea Aretoa).
- **Balmaseda** (del 1 al 10 de julio), en la Plaza San Severino (concierto inaugural en Klaret Antzokia).
- **Orduña** (del 8 al 18 de septiembre), en la Plaza de los Fueros (concierto inaugural en la Iglesia de la Sagrada Familia-San Juan).

ACTOS DEL CENTENARIO

La inauguración de la exposición itinerante y el descubrimiento de la placa conmemorativa del centenario de Bilbao Orkestra Sinfonikoa forman parte de un amplio programa de actividades, que incluye conciertos, conferencias, la creación de un gigantesco mural urbano y la publicación de un cómic sobre la historia de la orquesta.

Así, tras el **Concierto del Centenario** que Bilbao Orkestra Sinfonikoa ofreció la semana pasada, la BOS se sumará a la celebración del **25 aniversario de Guggenheim Bilbao Museoa**, con un concierto en el que interpretará “Cuadros de una exposición”, de Modest Mussorgsky, y el poema sinfónico “Andrómeda”, de la francesa Augusta Holmès.

Dentro de la temporada de abono 2022-2023, Bilbao Orkestra Sinfonikoa participará en el concierto-proyección de la versión original (en inglés, con subtítulos euskera y castellano) de **“El Señor de los Anillos: La Comunidad del Anillo”**, donde interpretará en directo la banda sonora compuesta por Howard Shore, que fue galardonada con un Oscar.

La cita será los días 15 y 16 de diciembre, y una semana después, el jueves 22 y el viernes 23, se celebrará un concierto de reencuentro entre la **Banda Municipal de Bilbao** y la BOS, rememorando los casi 20 años en que ambas formaciones estuvieron unidas.

Por último, a lo largo de esta temporada 2022-2023, Bilbao Orkestra Sinfonikoa estrenará **tres obras encargadas** a compositoras y compositores de nuestro Territorio con motivo del centenario. Así, los días 9 y 10 de marzo de 2023, la BOS ofrecerá el concierto para piano y orquesta compuesto por el bilbaíno Gabriel Erkoreka, reciente ganador del Premio Nacional de la Música. Y los días 28 y 29 de abril del próximo año, se estrenará la obra “Tiempo silente”, del compositor bilbaino Javier Quislant, ganador en 2020 de la Beca Leonardo de la Fundación BBVA.

CICLOS DE CONFERENCIAS

El programa de actividades previstas con motivo del centenario de Bilbao Orkestra Sinfonikoa incluye un ciclo de conferencias en colaboración con la **Universidad de Deusto**, que arrancó el pasado 14 de diciembre y se prolongará hasta el 24 de mayo, con la participación, entre otros, de Maite Aurrekoetxea, Directora del Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga; Miren Iñarga, Directora de Musikene; Jorge de Persia, investigador y crítico musical, y Luis Gago, editor y crítico musical.

Asimismo, el Auditorio de **Guggenheim Bilbao Museoa** alberga desde el pasado mes de diciembre un ciclo de charlas sobre las claves del proceso creativo, con la participación de la musicóloga Patricia Sojo, la compositora Birke Bertelsmeier, el director titular de la BOS Erik Nielsen y la compositora Isabel Urrutia, La última cita tendrá lugar el día 27 de abril, con motivo del estreno de “Tiempo silente”, de Javier Quislant, y contará con la participación del propio Quislant y José Luis Besada, presentador de “Música Viva” de Radio Clásica.

MURAL URBANO Y CÓMIC CONMEMORATIVO

Otras actividades previstas para conmemorar el centenario de Bilbao Orkestra Sinfonikoa son la edición, el próximo mes de septiembre, de un cómic sobre los cien años de trayectoria musical de la orquesta bilbaina, de la mano del conocido dibujante Enrique Martínez-Inchausti (Kike Infame), y la creación de un mural de más de cien metros en el muro que conecta el entorno de la Plaza del Sagrado Corazón con el barrio de Olabeaga, obra del especialista en arte urbano Pablo Astrain.